

Eskabidea betetzeko jarraibideak

- Eskabide hori aurkeztu ahal izateko, **aldez aurretik 0-3 edo 3-7 eskabidea aurkeztu behar da**, jaiotzagatik, adopzioagatik, tutoretzagatik edo adopzio aurreko elkarbizitzarako harreragatik hileko laguntza eskatzeko.
- Eskabide horrekin, laguntza eragin duen seme-alabaren desgaitasun edo mendetasunagatiko **hileko laguntzaren bikoiztasuna** eskatzen da.

1. Eskabide-mota

Hasierakoa: Laguntza eragin duen seme-alabaren desgaitasunaren edo mendetasunaren berri emateko, 0-3/3-7 eskabidea aurkeztu ondoren aitortu zaionean.

Berritzea: Aldez aurretik, laguntza eragin duen seme-alabaren desgaitasuna edo mendetasuna jakinarazi zen, eta desgaitasuna edo mendetasuna berrikusteko data iristean, laguntzak jarrai dezan eskatzen da.

Nork aurkezten du eskabidea?

Interesduna: Laguntza jaso nahi duen pertsona da, eskatzailea.

Ama edo aita, harreragilea eta tutorea izan daitezke, seme-alabaren zaintza eta jagoletza esleituta dituen familia-unitateko kidea bada.

Ordezkarria: baldin eta interesdunaren ordezkaria beste pertsona bat bada.

Kasu honetan, joan 4. orrira eta bete I. eranskina - "Ordezkaritza-baimena".

2. Eskatzailearen datuak

NAN/AIZ/Pasaportea: Eskatzaileak nazionalitate espainiarra duenean, bere NANaren zenbakia idatziko du. Eskatzaileak nazionalitate espainiarra ez duenean, AIZ (atzeritarren identifikazio-zenbakia) edo pasaportea adierazi behar da.

AIT: AIZ badauka eta, gainera, AIT agiria badauka (atzeritarren identifikazio-txartela), adierazi zenbakia.

5. Desgaitasuna edo mendetasuna onartua daukan seme-alabaren datuak

Laguntza eragin duen eta % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna edo mendetasun-egoera aitortu zaion seme-alabaren datuekin bete behar dira. Seme-alaba adingabea izan behar da.

Berrikuspen-data: Bete ziurtagiriak indarrean egoteari uzten dion datarekin. Desgaitasun- edo mendetasun-ziurtagirian adierazten da.

II. eranskina: Zaintza eta jagoletza partekatuaren kasuan laguntza nork kobratuko duen

Kasu honetan beteko da:

- **Zaintza eta jagoletza partekatua esleitzen duen ebazpen judiziala dago:** Baimena emateko, eskatzailea izan dadin seme-alabaren ziozko laguntza jasotzen duena.

III. eranskina: Zaintza eta jagoletza partekatuko seme-alabaren familia-errola kontsultatzeko baimena

Kasu honetan beteko da:

- **Zaintza eta jagoletza partekatua esleitzen duen ebazpen judiziala dago:** Laguntza eragin duen seme-alaba ez dago eskatzailearekin errolatuta. Baimen horrekin, egiaztatuko da seme-alaba beste gurasoarekin (ama/aita, tutorea, harreragilea) errolatuta dagoela.